

La Palma Itsas Erreserba.

Arrantza interesdun La Palma uharteko Itsas Erreserba 2001ean sortu zuen orduan Itsas Arrantzurako Idazkaritza Orokorra zenak, uharteko arrantza sektoreak horrela eskatuta. 3455 hektareatako azalera dauka, eta La Palmako hego-ekialdeko kostaldean 13 kilometrotan zehar hedatzen da. Natura 2000 Sareari dagokion kontserbazio bereziko zonaldea ere bada, eta biosferako erreserba mundiala.

Zaintza lanak lurrean noranahiko ibilgailu batekin egiten dira, eta itsasoan bi itsasontzirekin. Zaintzarako bestelako tresneria ere badago, esaterako, gauzez ikusteko prismatikoak eta kamera georreferentziatua. Zaintza taldeak egunero ibiltzen du erreserbako kostalde malkartsua, ekintza ilegalik egiten ez dela ziurtatzeko.

Bertako arrantza artisaua eta selektiboa da, funtsean amu bidezkoa. Erreserban lanerako baimenduriko itsasontziak uharteko bi kofradietakoak dira, *Tazacorte* eta *Santa Cruz de La Palma*. Erreserba hau sortu zenetik, arrantzuari ekiten dion gazte kopurua nabarmenki gehitu da, eta antzekoa gertatzen da lortzen dituzten harrapatzeekin ere.

Baina arrantza helburuaz harantzago, itsas erreserba bai paisaia eta bai biologiari dagokionez, urpeko aberastasun ugari batzen dituen eremua da. Zonaldeko zaintzaren emaitzak baloratzeko, uretan barneratzen den erreserbako talde teknikoak ikertu eta zaintzen ditu guztiak.

Murgilaldietan aurki daitezkeen espeziatariko batzuk ohiko papagai arrainak dira, ur hauetan ugariak; erreserba barruan taila garrantzitsua hartzen duten kraba edo ahuntz-arrainak eta *pejeperro* deitzen dutena. Azken hau, Kanariar itsas hondotan benetako izurritea den lima trikuaren populazioaren kontrolean ezinbestekoa da. Barrunbe txikiei lotuago dauden beste arrain batzuk *catalufa* deitzen dituztenak dira, eta hareatan barbarinak agertzen dira. Arrain pelagikoen artean, seriola mota bat da ohikoena, baina ornogabeak ere ugariak dira, hauen artean molusku bilatuenak; olagarroak eta txibiak.

Itsas erreserba hau, Espainiako sakonena, 1.000 metroko sakoneraraino hedatzen da. Bere hondo malkartsu eta latzetan, 35 metroko sakoneratik harantzago, koral komunitate zabalak aurkitzen dira, hauen artean koral beltza. Urpeko errobotek hondoak esploratzen laguntzen dute, itsaspekariak irits daitezkeena baino haratago.

Guztion ahaleginari esker, itsasoa errekuiperatzen eta behinola izandako distira lortzen ari da.